

Informazio-zirkularra: 2024/02

Hernani, 2024ko otsailaren 15a

LAN-ARLOA - LAN-JAZARPENAREN AURKAKO PROTOKOLO NAHITAEZKOA

Gogorarazten dizuegu 3/2007 berdintasun legea eta 901/2020 errege dekretua indarrean jarri zirenetik, erakunde enplegatzaile guztiek, langile kopurua gorabehera, lan-jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jardute-protokoloak izan behar dituzte.

Enpresa guztiek **nahitaez izan behar dute lan-jazarpenaren aurkako protokolo bat**, langile kopurua gorabehera. Protokolo horretan, jazarpenaren prebentziorako neurriez gain, langileek eta erakundeak **lan-jazarpenera dagoenean bete beharreko prozedura** ere jaso behar da.

Lan ikuskaritza ikuskapenak egiten ari da enpresek araudiaren arabeko protokoloak dituzten ala ez egiaztatzeko.

Arau-haustearen larritasunaren arabera, enpresek **zigor bat edo beste bat** jasoko dute protokolorik ez izateagatik. Lan Arloko Arau Hauste eta Zigorren Legearen arabera, honako zigor hauek ezarriko dira:

- **7.501 eurotik 30.000 eurora arteko** isunak arau-hauste arinentzat
- **30.001 eurotik 120.005 eurora arteko** isunak arau-hauste larrientzat
- **120.006 eurotik 225.018 eurora arteko** isunak arau-hauste oso larrientzat

BRINTZAn, lan-jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jardute-protokoloak egiteko zerbitzua eskaintzen dizugu. Gure bezeroek % 33ko deskontua izango dute prezio orokorraren gainean, eta tarifa finkoa (prezioa ez da aldatuko langile kopuruaren arabera).

Zerbitzuaren prezio orokorra: 210 € gehi zergak. BRINTZako bezeroentzat, **150 €-ko prezioa ezarri dugu (gehi zergak).**

Zerbitzua kontratatzeko, deitu 943331267 telefonora edo idatzi brintza@brintza.com helbidera.

Gogorarazten dizuegu Brintzako Departamentu Juridikoan kalitatezko zerbitzua emango dizuegula arlo hauetan: diru-errekamazioak, ordaindu gabekoak, saleroste- eta errentamendu-kontratuen arloko aholkularitza eta idazketa, herentzien tramitazioa, testamentuen arloko azterketa eta aholkularitza pertsonalizatua, erretiroak eta ezgaitasunak, eta abar.